

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Galea vitae, kirol-taldeei, eraikuntza-enpresei eta traumatismo kraneoenzefalikoak izateko arriskua duten pertsonei zuzendutako produktua da. Produktu honen helburua lesio larriak prebenitzea da, eta, aldi berean, jasotako kolpeari buruzko informazioa ematea, epe luzera horren ondorioak murrizten saiatuz.

Berritasuna:

Produktuak berrikuntza teknologikoa eskaintzen du, babes-elementu tradizionalak (kaskoak) eta adimen artifizialaren bidezko kolpeen analisia uztartuz.

Prezioa lehiakorra izan behar da merkatuan dauden babes-kaskoen aldean, baina eskaintzen duen teknologia aurreratuak justifikatu dezake kostu handiagoa.

Gailua erabiltzailearen neurrira egokitu daiteke (tamaina, forma, kolorea, taldearen logoa...), eta datu-analisia pertsona bakoitzaren profilaren arabera egokitzen da.

Erabiltzaile arruntentzat erraz eskuragarria izatea da helburua, bai prezioaren aldetik, bai merkatutzeko kanaletan (online, denda espezializatuak, etab.).

Material arinak eta transpiragarriak erabiliz, erabiltzailearen erosotasuna bermatzen da, babes-maila altua mantenduz. Produktua intuitiboa da; aplikazio baten bidez informazioa jaso eta kolpeen datuak erraz azter daitezke.

Diseinu ergonomikoa eta modernoarekin, funtzionaltasuna eta estetika uztartzen ditu.

Galea Vitae markak berrikuntza, segurtasuna eta teknologia adimentsua irudikatzen ditu.

Bezeroarentzako online arreta eta zerbitzua:

Lineako laguntza-sistema eraginkorra eskaintzen du, produktuaren erabilera, datuen interpretazioa eta mantentze-lanak errazteko. Epe luzera, lesio larrien prebentzioak eta osasun-gastuetan egindako aurrezpenak produktuaren inbertsioa justifikatzen dute.

Erabaki egokiena galea vitae aukeratzea da hainbat arrazoiengatik; Funtsezkoa da ulertzea eta maneiatzea zer eragin izan dezaketen buruko inpaktuek atleten osasunean. Galea vitae kaskoak, sentsore aurreratuekin, honako hau neur dezake:

- Kolpearen potentzia/indarra
- Eraginako eremua edo lekua
- Kolpearen sakonera (zenbaterako mina sortu duen, larritasuna)

Garaiz detektatzeko egoera arriskutsuak eta jarraipena egiteko aukera ematen du

Balio kuantitatiboa eta kualitatiboa

Gure produktuak balio kuantitatiboa eskaintzen ditu. Daukan diseinu intuitiboari esker, ekipo erabiltzaileei eskaintzen duen segurtasunagatik eta traumatismo kraneoenzefalikoak detektatzeko eta informazioa transmititzeko duen gaitasunari esker eta datuak modu argi eta zehatzean transmititzeak ekartzen duen onura.

Balio kualitatiboa eragindako eremuaren ehunekoen eta kaltearen intentsitatean oinarrituko da, datu espezifikoei.



BIBLIOGRAFIA:

- [Deportes con casco: seguridad primero | Run On World](#)
- [Que deporte usan casco? – RESPUESTAS RAPIDAS](#)
- [Uso del Casco en Deportes | ¿Cuándo es Recomendable? 🏊‍♂️🌂](#)
- García, B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.
- STARTINNOVA plataformako materiala.
- <http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>
- Logoa: <http://www.chatgpt.com>